



**2015EKO IRAILAREN 8AN SASIETA MANKOMUNITATEAREN
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Mankomunitatearen Egoitza, Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Zortzi

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ezohikoa

DEIALDIA: Lehena

BERTARATU DIRENAK:

Eluska Ibareguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria
Edorta Diaz Del Rio, Beasaingo ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Jesus Maria Garmendia Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Mariano Garmendia, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Arruabarrena, Olaberriko ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria

Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiako ordezkaria
Joseba Izagirre Arozena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

BERTARATU EZ DIRENAK:

NONGO ORDEZKARIA

Ezkio-Itsaso
Ordiziako bi ordezkariak

IDAZKARIA: Iñaki Eskisabel Zurututza

Idazkariak batzarraldiari hasiera eman ondoren, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez. Mahai hori Ricardo Lozano Landart Zumarragako ordezkariak burutzen du, zinegotzi zaharrena izateagatik eta Olaia Izagirre Cruz Ormaiztegiko ordezkaria izango da zinegotzi gazteena denez Mahaiko beste partaidea.

1- SASIETA MANKOMUNITATEAREN GOBERNU ETA ORGANO ADMINISTRAZIOEN ERAKETA

Bilera honetarako jarritako gai-zerrendaren berri ematen da :

- a) Batzorde Errektorearen Eraketa
- b) Presidentearen izendapena
- c) Presidenteordearen izendapena
- d) Batzorde Egikaritzaillearen eraketa

2- BATZORDE ERREKTOREAREN ERAKETA

Idazkariak ezagutzera eman du Sasieta Mankomunitatea, hogeita bi udalerrik osatzen dutela, baina 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herriak, bi ordezkari dituztela. Horren ondorioz, ordezkariak, guztira, 28 dira. Estatutuetoako 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, batzarraldia osatzeko kideen erdia gehi bat bilerara etortzea beharrezkoa da. Bilera honetara ordezkari kopuru hori baino gehiago etorri denez, eraturat ematen da batzorde errektorea.

3- PRESIDENTEAREN IZENDAPENA

Estatutuetako 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzar Errektoreari dagokio, presidentea izendatzea. Horren ondorioz, Idazkariak galdetu du ea norbaitek bere burua aurkezten duen izangai izateko.

Mikel Serrano Aperribay Zumarragako ordezkariak esaten du Aitor Aldasoro Iturbe Beasaingo ordezkaria proposatzen duela presidentetarako.

Aitor Aldasoro Iturbek ontzat ematen du presidentetarako hautagai izatea.

Eñaut Telleria Urkia Segurako ordezkariak bere burua aurkeztu du baita ere presidentetarako.

Beste hautagairik ez dagoenez bozketa egin da, txarteletan izangaien izen-abizenak jarritz. Botoen zenbaketa egin da. Guztira hogeita bost boto eman dira eta Mahaiak boto paperak ireki eta irakurri ditu, Presidentea izateko proposatuta dauden ordezkarien izen-deiturak esanez. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

AITOR ALDASORO ITURBE	16 boto.
EÑAUT TELLERIA URKIA	9 boto.

Horren ondorioz, Aitor Aldasoro Iturbe aldarrikatu da mankomunitatearen presidente, boto gehien jaso dituen hautagaia bera izan delako eta berak karguaren jabetza hartu du.

4- PRESIDENTEORDEAREN IZENDAPENA

Presidenteak presidenteordetarako Ioritz Imaz Baztarrika Idiazabalgo ordezkaria proposatzen du.

Ioritz Imaz Baztarrikak ontzat ematen du presidenteorde gai izatea.

Eñaut Telleria Urkia Segurako ordezkariak bere burua aurkezten du presidenteordetarako.

Presidenteorde izateko izangaien aldeko bozketa egin da, txarteletan izangaien izen-abizenak jarritz. Botoen zenbaketa egin da. Guztira hogeita bost boto eman dira eta Mahaiak boto paperak ireki eta irakurri ditu, presidenteorde

izateko proposatuta dauden ordezkarien izen-deiturak esanez. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA	14 boto.
EÑAUT TELLERIA URKIA	11 boto.

Horren ondorioz, Ioritz Imaz Baztarrika aldarrikatu da mankomunitatearen presidenteorde, boto gehien jaso dituen hautagaia bera izan delako eta berak karguaren jabetza hartu du.

5.- BATZORDE EGIKARITZAILEAREN ERAKETA

Estatutuetako 7.1 artikulua araberan, Batzorde Egikaritzaila bost ordezkariak osatuta egongo da eta horietako bi, lehendakaria eta lehendakariordea izango dira. Halaber Beasaingo ordezkari bat beti egongo da Batzorde Egikaritzailan. Izan ere, zabortege kontrolatua, Beasaingo udalerrian kokatuta baitago.

7.2 artikulua adierazten duenez, gainerako partaideak ondorengo barruti hauetako bakoitzeko ordezkari bat hautatuz izendatu behar dira:

- Ataun, Ordizia eta Lazkaotik bat.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegitik bat.
- Olaberria, Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa eta Idiazabaldik bat.
- Zaldibia, Itsasondo, Legorreta, Gaintza eta Aramatik bat.

Beasaingo ordezkaria, Aitor Aldasoro Iturbe izango da.

Aitor Aldasoro Iturbe, presidentea, Beasaingo ordezkaria da.

Ioritz Imaz Baztarrika hirugarren barrutiko ordezkaria izango da Batzorde Exekutiboaren partaide, presidenteorde delako.

Presidenteak esaten du mankomunitatea osatzen duten ordezkarien alderdi ezberdinak batzorde egikaritzailan ordezkariak egon daitezela, lehenengo barrutiko ordezkaria Ataungoa izatea proposatuko lukeela, EH Bildukoa, bigarren barrutiko ordezkaria Zumarragakoa, PSOEkoa, izatea eta laugarren barrutiko ordezkaria EH Bilduko ordezkariaren bat izatea.

Honen aurrean mankomunitatea osatzen duten barruti ezberdinetako partaideak beraien artean biltzen dira gaia aztertzeko.

Lehenengo barrutiko ordezkaria izateko, Asier Rodriguez Etxeberria Ataungo ordezkaria aurkeztu da.



Bigarren barrutiko ordezkaria izateko, Mikel Serrano Aperribay Zumarragako ordezkaria aurkeztu da.

Laugarren barrutiko ordezkaria izateko, Asier Garro Sodupe Itsasondoko ordezkaria aurkeztu da.

Estatutuetako hirugarren Xedapen Gehigarrian adierazten denaren arabera, Batzar Errektoreari dagokio Batzorde Exekutiboaren partaideak hautatzea, 7.2 artikulua ezartzen diren irizpideen arabera.

Horren ondorioz, eta barruti bakoitzerako hautagai bakarra egonik, bozketara jartzen da proposamena eta batzorde errektoreak, bertaratutako guztien aldeko botoekin, proposamena onartu egiten du.

Hautatuek karguen jabetza hartu dute.

Beraz, Batzorde Egikaritzaille edo Exekutiboa osatzen duten ordezkariak ondorengo hauek dira:

- Aitor Aldasoro Iturbe.
- Ioritz Imaz Baztarrika.
- Asier Rodriguez Etxeberria.
- Mikel Serrano Aperribay.
- Asier Garro Sodupe.

Eta eguneko gai-zerrendan tratatzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat jotzen da arratsaldeko zazpiak hogeit gutxi direnean eta nik, idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.